



Indaleki Ojanguren en oroitzapenez

Indaleki Ojanguren, neretzat bigarren aita bat bezala zen, mendi-ibili askotako adiskide mina, eta arte ikusketetako ere ez gutxitan. Beti ondo elkarraitu ginen. Mendizaletasunean bera izan nuen lehen urratsen gidari, baita ere gure inguruetako monumentuak eta folklorea ezagutzen, eta batez ere fotografiaren arte zaletasunean. Inori ezer zor badiot, nere izate moduaren aldetik, Ojangureni zor diot beste inori ez beste.

Otsailaren 18an hil zen Eibarren. Hemen bertan sortu zen 1837ko azaroaren 15ean.

Fotografian eta mendizaletasunean zituen bere entzuteak, bere ohoreak, bere barne-muninetatik zaletasun hauen eraginez bizi zen gizon honek.

Dinamikoa, eta bere aparteko langiletasunak eta izatez ekarren berezko kolezio-zale-
tasunak eragin zion bizitzaren zehar jardun zen ekintzan, milak kilometruak oinez eginaz, artxibo ikaragarri bat pilatzea: paisajeak, mendi-gailurrak, baserriak, eskutuak, eleizak, ermitak, udaletxeak, herri-gizonak, ohiturak, gertaerak, monumentuak, e. b., Euskal Herri-koak batez ere. Bere fitxeroetan mende erdi bateko irudizko testigantza biltzen da.

Berak utzi digun gauzarik interesgarriena, dokumentuzko balio handia duen artxiboa da. Artean, folklorea, heraldikan eta historian oso bakana. Artxibu hau, gaur, Gipuzkoako Diputazioarena da. Euskal Herriko argazki-negatiboa, 7.000tik gora ditu.

Beraz, ez da harritzekoa Euskal Herriko garrantzidun liburu askok Ojangurenen fotografiak eramatea. Hauetarik gogoratzen garen batzuk ditugu: Pikabearen **Album gráfico descriptivo de Guipúzcoa**, Carreras Candi-ren zuzendaritzapean egindako **Geografía General del País Vasco-Navarro**. R. M. Azkueren **Euskal Herriaren Yakintza**, Jabier de Ybarraren **Catálogo de Monumentos de Vizcaya**, Pio Barojaren **El País Vasco**, eta abar.

Eibartar jatorra, herriko semeen humorez hornitua, ateraldi zelebren ugaridun gizona. Hauetaz eta bere bizitzako zertzelada askoz jardun nintzen **Egan** (1966, 92/95 orrialdetan) eta **Pyrenaica** (1967, 41/47 orr.; 1972, 51/54 orr.).

Humore aparteko honen ageriak ditugu bere ateraldiak. Bere artxibua ezagutzean, hain lan handiaren aurrean harriturik gelditu zen bati, esan zion: Zenbat bihar egingo nukean nik, biharra egin beharrik izan ez banu. Eibartarrentzat, lana, biharra da (— beharra); zeren lana beharrezkoa ez balitz, inork ez zuen egingo.

Bere zaletasunik berezienak fotografia eta mendia ziren, eta kezka berdina kolezionatu zituen baserriak eta ermitak, mendi-gailurretara igotzen zen bezala, Euskal Herriko mendirik apalenetatik hasi eta Pirineo, Picos de Europa eta Sierra Nevada-ko gailurrik altuenetara arte. Berrogei urteren buruan, etengabe, zortzi aldiz egin zuen ehun mendi desberdinetara igotzeko konkursoa. Gainera, mendizaletasunaren eragile sutsu bat izan zen deporte hau Euskal Herrian sartu zenetik. Eta deporte honetan irabazi zituen merezi-menduegatik Mérito Deportivo de Montaña izeneko medallak hartu zituen 1943 eta 1946an. Eibarko Club Deportivoan zuzendaritzan kargudun izan zen zenbait aldiz, eta presidente ere bai behin baino gehiagotan, eta 1953an, elkarte honek, bere omenezko fotografia erakusteka berezi bat antolatu zuen, eta 1966an elkartearen ohorezko presidente izendatu.

Heriotza honekin, gure Club Deportivo honek galera handia izan du. Urteak ez dute inor barkatzen eta hau izan bedi gure konsolagarri. Gainera, Indalekik, lan askoren buruan, urteok ondo aprobetxaturik eraman ditu.

Orain, Euskal Herriko mendizaleen federazioak, bere oroitzua betiko tinkatu nahirik, urteroko mendi-fotografia erakusketari, I. Ojanguren-en izena jarri dio. Izen honekin, lehen aldiz, aurtan Eibarren egin dena da.

Izan bedi baketan bere bizitzako eginkizunak hain ongi bete zituen gizona, berak hainbeste maltatzen zituen goietan.

JUAN SAN MARTIN

óptica



PLAZAOLA

Estación, 8

Tel. 712137

eibar

f o t o